



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

FARMAZIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE FARMACIA

upna

Universidad Pública de Navarra  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa



# ENOLOGIA BERRITZAILEA MASTERRA

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

---

## AURKEZPENA ETA HELBURUAK

---

Mahastizaintza eta ardogintzaren sektorea oso dinamikoa da azkenaldian. Beste kontinente batzuetan, herrialde ekoizle berriak agertzen ari dira, eta, horrez gainera, mahastizaintzako eta ardogintzako teknika berriak daude, baita produktua merkaturatzeko eta marketina egiteko estrategia berritzaileak ere. Horren guztiaren ondorioz, zalantzan jarri da zenbait lurralde ekoizle eta markak historikoki lortua zuten estatusa. Egoera horri aurre egiteko, beharrezkoa da maila goreneko profesional espezializatuak izatea, ikuspegi orokorra duten ardo ekoizpenaren negozioaren arlo guztietan eta upategien kudeaketa komertzialean.

Enologia Berritzailea Unibertsitate Arteko Masterra mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektoreko profesionalen

trebakuntzara bideratuta dago. Ikasleek mundu osoko merkatuak eta estrategia komertzialak ezagutuko dituzte, eta gai izango dira zentzumenen bidezko analisirako jardunbide egokiak aplikatzeko. Modu horretan, oso-osorik definitu ahalko dute produktu sorta bat, merkatuaren eskaerak kontuan hartuta, eta, era berean, produktua modu berritzailean definitzen eta kudeatzen lagunduko dute, mahastiaren aukerei eta praktika enologikoei ahalik eta etekin handiena ateratzeko. Betiere, berrikuntza sustatuta, bai alderdi teknikoan eta prozeduretan, bai alderdi komertzialean, erakundeen arrakasta bermatze aldera. Programaren ikuspegi diziplinartekoak, gainera, beste master batzuetatik bereizten du, batez ere ardoaren elaborazioan soilik oinarrituta daudenetatik.

---

## SARBIDEA

---

Enologia, Elikagaien Zientzia eta Teknologia, Biologia Gradua, Kimika Gradua, Ingeniaritza Agronomikoa, Elikagai prozesu eta produktuen berrikuntza, Nekazaritzako Elikagaien eta Landa Ingurunearen Ingeniaritza, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza, Marketin Diziplinarteko ikuspegia izanik, Masterra interesgarria izan daiteke aurretiko prestakuntza oso desberdina duten ikasleentzat ere.

Batzorde Akademikoak baimenduko du sarbidea pareko beste gradu edo titulazio batzuetatik.

---

## IRTEERA PROFESIONALAK

---

Maila goreneko profesional espezializatuak, ikuspegi orokorra duten ardo ekoizpenaren negozioaren arlo guztietan eta upategien kudeaketa komertzialean.

Upategiko jardueren koordinatzaileak, egunetik egunera aldakorragoa eta konplexuagoa den merkatuan barneratzeko estrategia finkatzeko gaitasuna dutenak.

Prestakuntza integrala jasoko duzu unibertsitate arteko master baten bidez (UPV/EHU-UPNA), presentziala, ofiziala, doktoregorako sarbidearekin eta titulu bikoitza izateko aukera Bordeleko Unibertsitatean.

---

## ONARRIZKO INFORMAZIOA

---

**Eskolak emateko lekua:**

UPV/EHU: Farmazia Fakultatea (Vitoria-Gasteiz).

UPNA: Escuela Técnica Superior de Ingenieros Agrónomos (Iruña)

**Irakaskuntza mota:**

Eskolan bertakoa.

**Hizkuntza:**

Gaztelania.

**Gutxi gorabeherako prezioa:**

2.000-2.200 euro.

**Egutegia:**

Urritik maiatzera, arratsaldez.

# IRAKASTORDUAK/IRAUPENA

60 ECTS / ikasturte 1

Nahitaezko  
Gaiak

27 ECTS kreditu

Hautazko  
Gaiak

12 ECTS kreditu

Kanpoko Praktiak  
6 ECTS kreditu

MAL  
15 ECTS kreditu

Guztira

60 ECTS kreditu

## PRESTAKUNTZA PROGRAMA

### Nahitaezko gaiak:

- Mahastiaren Kudeaketa eta Babesa
- Zuzendaritza eta plangintza estrategikoa ardogintzan
- Esperimentuen Diseinua eta Zentzumenen bidez Lortutako Datuen Prozesamendu Estatistikoa
- Ardo dastaketaren oinarri metodologikoak eta ekoizpen ereduen zentzumenen bidezko sailkapena
- Mahastizaintzaren eragina ardoaren zentzumen ezaugarrietan
- Entrenatutako panelak eta kontsumitzailearen lehentasunen analisia
- Enologiaren eraginak zentzumen-ezaugarrietan
- Merkataritza zuzendaritza, marketin aurreratua eta beren integrazioa kontsumitzaileen lehentasunekin

### Hautazko gaiak:

- Ardoaren analisi eta kontrol kimikoa
- Joera Berriak Mahastizaintzan
- Enologiaren joera berriak
- Ardoaren nazioarteko merkataritza

### Heziketa-osagarriak (ikaslearen aurreko formazioaren arabera):

- Mahatsaren Ekoizpen eta Konposizioaren Oinarri Fisiologikoak eta Ingurumenekoak
- Enologiaren oinarriak
- Zentzumenen bidezko Analisiaren Oinarriak
- **Master Amaierako Lana**
- **Kanpoko Praktiak** (Praktiak upategian)

## HARREMANETARAKO

### Masterreko koordinatzailea eta

#### UPV/EHuko arduraduna:

Francisco José Pérez Elortondo

Tel: 945013075

#### Posta elektronikoa:

franciscojose.perez@ehu.es

### UPNako arduraduna:

Luis Gonzaga Santesteban García

Tel: 948169718

#### Posta elektronikoa:

gonzaga.santesteban@unavarra.es

## ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK ETA BABESLEAK



EKONOMIAREN GARAPEN  
ETA AZPIGERTURA-SAILA  
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS



ENOLOGI BERRITZAILEA  
MASTERRA

[www.ehu.es/eu/web/master/enologia-berritzailea-masterra](http://www.ehu.es/eu/web/master/enologia-berritzailea-masterra)